

Bilboko Udal Liburutegien Sareak handitu egin du doako Wi-Fi konexioen eskaintza

Bilboko Udal Liburutegien Sareak handitu egin du Wireless Fidelity (Wi-Fi) estaldura eskaintzen duten zentroen eskaintza. Teknologia honek interneterako haririk gabeko sarbidea errazten die ordenagailu pertsonalei. Zerbitzu hau Bidebarrietako Liburutegian baino ez zen eskaintzen orain arte, baina hemendik aurrera Deustu, Begoña, Zorrotza, San Frantzisko, Errekalde, Otxarkoaga eta Zurbaranbarriko liburutegietan ere erabili ahal izango da. Udal zentro hauetan guztietan, erabiltzaileek Interneten doan eta mugarik gabe nabigatzeko aukera izango dute.

Zerbitzua erabiltzeko moduan egongo da zortzi liburutegi hauetara Wi-Fi konexioa duten ekipoak daramatzaten guztientzat, ordenagailu eramangarriak, PDA agenda digitalak, hirugarren belaunaldiko telefono mugikorrak eta abar tarteko direla. Udal zentro hauetan erabilgarri dagoen haririk gabeko konexio kopurua 70etik gorakoa da, eta ondorioz, jenderik gehien dagoen uneetan, erabilera-denbora mugatuko da, zerbitzurako sarbidea ahalik eta jende gehienari errazteko asmoz, Bilboko Udaletik azaldu dutenez.

Bilboko Udal Liburutegien Sarearen ekimen hau teknologia berrietara egokitzea xede duen modernizazio prozesuaren barruan gauzatu da, informazio-bilaketari, ikerketari eta ikasketari dagozkion zereginak hobetzeko asmoz. Wi-Fi konexioen osagarri gisa, bestelako zerbitzu birtualak ere erabil daitezke Liburutegi Sarearen webgunean (www.bilbao.net/bibliotecas).

Udal liburutegien webgunean sartuz joan diren baliabideen artean, erabiltzaile-karneta eskatzeko inprimakia euskaraz, gaztelaniaz eta beste zazpi hizkuntzatan egiteko aukera nabarmen daiteke: arabieraz, ingelesez, frantsesez, errusieraz, errumanieraz, portugesez eta txineraz.

Horrez gain, webgune honen bitartez, Udal Liburutegien Sareko katalogo osoa erabil daiteke, baita maileguak on line kontsultatu eta berritu, liburuak erosteko eskabideak bidali edota liburutegi-arteke maileguak eskatu ere, beste hainbat zerbitzurekin batera.

Didakteka da teknologia berriak udal liburutegietan erabili eta hedatzearen ondorioz garatu den beste zerbitzu bat, guztiz doakoa eta autoprestakuntza eta banakako lana xede dituen. Zerbitzu honek programa ofimatikoetarako (Word, Excel, Access eta abar), interneterako eta kontsultarako zenbait CD-ROMetarako sarbidea duten ordenagailuak jartzen ditu interesatutakoen esku.

Didakteka zerbitzua Bidebarrieta, Bilbao Musika, Begoña, Deustu, Otxarkoaga, San Frantzisko, San Inazio eta Zorrotzako liburutegietan erabil daiteke. Ekipoak erabiltzeko derrigorrezkoa da aldezturik erreserba egitea, eta horretarako nahikoa da zentroetan eskaria egitea edota, Bidebarrietaren kasuan, 94 415 50 54 telefono zenbakira deitzea.